

ISIDRO deuna 2019

Baserritarren jaia

PROGRAMA

Goizeko 9:30ean: **XAPRE** trikitixa.

10:00etan: **PROZESIOA** eta **MEZA**.

Goizean zehar: Astigarragako **LAGATXAGA** baserriko produktuen erakusketa.

11:00etan: **HAMAIKETAKO HERRIKOIA**, Gure Izarra Elkartean.

Eguerdiko **IDI DEMAK:**

12:30ean: **Loiuko Iñigo AURREKOETXE**aren lau idi eta Kantabriako **Antonio COTARELO**ren hiru idi plazaratuko dira. Idijabe bakoitzak idiekin orain arte egindako bere **marka ahusteko** helburu hartuta. Bi probetan, **3.298 kiloko harriaz** arituko dira idiak, **30 minutuz**.

Egunean zehar: Sebastian **LIZASO** eta Andoni **EGAÑA** bertsolariak.

Arratsaldeko Herriko bazkaria eta **LAGATXAGA** "baserri bizia"ri

14:30ean: **merazitako esker ona ematea**, Gure Izarran.

MANTEROLA ANAIAK PENTSUAK S.L.

PENTSU ETA BESTE NEKAZALGAIAK



Pgno. Erratzu, 1
Pabellón 135

Telf. 943 55 03 35
20130 URNIETA

Astigarragan

ISIDRO deunaren
JAIA

2019

maiatzak 15, asteazkena



Astigarragako Udala

HISTORIA

Lagatxaga baserriaren lehen aztarnak 1856an agertzen zaizkigu. Izan ere, egungo senitartekoen birraitona-amonek (1. belaunaldikoak), Pedro Irastorza Aldanondok eta Bixenta Aldanondok, jabetzan eskuratu zuten baserria. Jarraian, Bittor Irastorza Aldanondo, aitonaren, eta Maria Retegi Altunaren ezkontzarekin 2.belaunaldia osatu zen. Ondoren, haien semea, Patxi Irastorza, Paula Arrutiarekin ezkondu zen (3. belaunaldikoak) eta bi seme izan zituzten, Luis eta Antonio. Antonio Irastorza baserrian gelditu zen, eta gaur egun ere bertan jarraitzen du, Irungo Iparragirre baserriko Mari Carmen Zipitria emaztearekin. Haien ezkontzarekin bi seme-alaba, Iñaki eta Itziar, jaio ziren.

Baserriaren izen ofiziala Lagatxaga da nahiz eta herritar gehienok *Latxa* izenez ezagutu. Baserria bi etxebizitzatan banatuta dago eta **bertan bizi diren familiek, urbistondotarrek eta irastorzatarrek**, gertuko elkarbizitza izan dute betidanik. Baita inguruko baserrikoekin auzolanean ere aritutakoak dira lagatxagatarrak: herri bide-tako berritze lanetan eta sortutako ezbeharretan elkarri laguntza emanez.

Ikuspegi arkitektonikoaren aldetik, baserriko sarreran dotorezko kareharrizko atea eta ateburua daude. Barruan, berriz, oraindik zutik dirauen baserriko tolaera, 3x3 metro karratukoa. Bertan baserriko kontsumorako 3.000 litro sagardo egiten zuten, orain dela 25 urtera arte.

Baserrigintzan erabilitako **balio handiko bi tresna ilusioaz gordetzen dituzte bertakoek**: karro baten egurrezko gurpilak, erradiozko egiturazkoak, eta orain dela gutxi arte erabiltzen zuten abereen ferratoki zaharra.

LAGATXAGA



JARDUERAK

Lagatxaga baserriak duen ustiapen **jar-duera nagusia nekazaritzakoa** da, nahiz eta bost behi eta lau txekorren azien da izan gaur egun. Sasoi batean, hogeita hiru buru gobernatzen zituzten. Sagastitarako erabiltzen dituzten lur guztietatik 12.000 kiloko sagar uzta lortzen dute, batez beste.

Barazetako **ekoizpenak ugariak dira**: letxugak, tomate, bainak, piperrak, porruak, tipulak, ilarrak, azelgak, babarrunak eta garraiko beste hainbat barazki.

Aurretik deskribatutako produktu horiek guztiak Donostiako Gros auzoko merkatuan saltzen ditu Antoniok egunero (hamazazpi urtetik hogeita hamarrera postuan ere saltzen zituen).

Baserrigintzarako tresnen mekanizazio ona dute Lagatxagakoek: bi traktore, bi sega makina, belar fardoak egiteko makina eta behiak jeztekoa, tanke eta guztiz, besteak beste.

Mari Karmenek eta Antoniok oso barneratuta dute baserriak eman diela bizitza oso sasotsu eta osasuntsua, eta beraz, baserrian jarraitzea espero dute, beraien familieren aurrekoen legez.

Baserritar kuttun hauek diotenez, jarraera zintzoarekin konformatu dira beti, alegia, bertatik ateratzen denarekin, "handitasunetan sartu gabe".

Baserri mundutik bizi den eredu zko familia honek egindako lana aitortzeko eta Lagatxaga baserri biziari merezitako esker ona emateko, ekitaldi xume bat antolatuko da aurtengo San Isidro egunean.

BASERRIA



Santiomendi auzoan, Hernaniko mugatik gertu, **Oiarbide bideko 17. zenbakian dago kokatuta Lagatxaga baserria**. 1960an berritutako baserri hau bi oinetako eraikina da, bakoitzak 110 metro karratu dituela. Beheko oinean, ukuilua, barazkiak biltzeko guneak eta tolaera zaharra dituzte. Lehen oinean, aldiz, etxebizitza dute, eta bertan Antonio eta Mari Karmen bizi dira. Baserriko ganbara ere mesedegarri da zenbait uzta gordetzeko.

Jabetzan duten lur guztien azalera 5 hektareakoa da, lur motaren arabera honela banatuta: barazetarako 15.000 m², sagastitarako eta belardietarako 15.000 m², eta basorako 20.000 m².